

# MITXELENA JAUNARI

JOAN MARI TORREALDAI  
"Jakín"-en zuzendaria

**C**REO que mi intervención como director de la publicación "Jakín" es obligada, ya que el señor Mitxelena en su "Acuse de recibo" (DEIA, 15-1-82) nos cita explícitamente y al menos en cinco ocasiones, no precisamente de manera "benevola", y dando lugar, intencionadamente o no, a interpretaciones falsas.

Me ha sorprendido ver el nombre de "Jakín" en este debate. Mi sorpresa se debe sin duda a que yo partía de la hipótesis de que en el debate (o ataque) del señor Mitxelena, lo que éste trataba de aclarar eran cuestiones lingüísticas. A partir de ahí —debe de ser falso el punto de arranque de mi explicación—, no entiendo muy bien las alusiones a "Jakín", como tampoco había entendido con anterioridad el tono adoptado, el momento elegido y la lengua empleada. Ni en el tono ni en la lengua quiero ser un seguidor del señor Mitxelena, (en cuanto al momento no tengo elección). El diálogo y la crítica, a mi entender, exigen otro tono. Y, por supuesto, la cuestión que "parece" se debate debe hacerse en euskara. ¿No es el euskara la lengua de "Jakín", la de los diccionarios de UZEI y la nuestra? Paso, pues, sin más, al euskara.

Mitxelena jauna noizbait gurekin sartzeak ez nau gehiegi harritu. Baina, egia esan, ez nuen espero testuinguru honetan aipatuko gintuenik. Behin eta berriz, han eta hemen, honi eta hari entzunda, bagenikien jakin ez omen ginela Mitxelena jaunaren oso gogokoak. Hori, orain, berak idatzirik jakin ahal izan dugu. Aspalditik omen du gure kontrako errezelua (ez hain aspalditik, agian, aipamen batzuk lekuko). Aspaldiko errezelu hori eraso bilakatu zaigu orain. Ez gara lehenak Mitxelena jaunaren erasoetan, eta egingo nuke ezetz azkehak izan. Gure aurretik berea jaso du beste askok, EHEk, UEUk, UZEIK eta hainbat eta hainbat euskaltzalek. Gure txanda da orain.

Mitxelena jaunaren guri buruzko errezeluak gorabehera, eta horiek ongi ezguturik ere, hizkuntzalari haren lanaz Jakín-ek duen eritzi positi-

boa ez da fitsik aldatu. Irakurle interesatuak lekuko ezin hobek aurkituko ditu gure azken zenbaki monografiakoan, "Jakín 25 urte euskal kulturari" izenekoa.

Beldurturik eta ikaraturik bide daukagu Mitxelena jauna. Ez da bera euskal kulturari beldurturik dabilen bakarra, baina beldur horiek uxatzen saiatuko naiz, ahal dudan neurrian, argitasun pare bat eskainiz.

Lehenengo eta behin hauxe esan nahi dut: Mitxelena jaunak idaroki nahi duen "complejo Jakín"ik ez dago, Mitxelena jaunaren irudipentetan ez bada. Mitxelena jaunaren "complejo Jakín" hori gure 2.300 harpidedunak dira. Harpidedun horiek eta aldizkariaen inguruan dihardugunok egiten dugu Jakín. Euskal kulturari ezagunak garelakoan nago. Gure indarra zein den guk geuk bezain ongi daki Mitxelena jaunak: bere konfiantza eskaintzen diguten harpidedunak eta gure lana. Ez dago beste misteiorik.

Beste puntu bat ere aipatu beharrean aurkitzen naiz, aurrekoaren osagarri. Mitxelena jaunak "complejo Jakín" bat asmatzen du. Baina ez du mugatzen, ez eta zehazki-mehatz zer den. Badirudi, halere, UZEIrekin berdindu nahi duela. Ez ote daki Mitxelena jaunak oso ongi UZEI eta Jakín bi gauza direla, ez bat, batak eta besteak maiz aldarrikatu dutenez, eta batak eta besteak eguneroko praxian, ikusi nahi duenarentzat, egun argitan erakutxi dutenez? UZEIren ideia Jakín-en bazen ere, hori aspaldiko kontua da, ideien erreinuko, errealitatean mailan lehen egunetik egin ait du bere bizitza arras autonomoa UZEIK. Orain nahasmendua sortu nahiak zer du atzetik: informaziorik eza ala bestelako asmoren bat?

Erregu batekin amaitu nahi nuke nereas. Mitxelena jaunari, Jakín-i dagozkionetan bederen, gauza bat eskatu nioke nik: bere fobiak eta susmoak alde batera utziz juzka gaitzala, egiten dugun lana neurritzat harturik, ematen ditugun fruituetatik.

Donostia, 1982ko urtarrilaren 18an.